



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten oinarrien onartzea.

Alkatearen 2020ko otsailaren 10eko 2020/000354 dekretuaren bidez Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten Oinarriak onartu dira.

Basaurin, 2020ko otsailaren 11n.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



GIZARTE-ARRISKUAK EDO GIZARTE-BAZTERKERIAK PREBENITZEKO, SAIHESTEKO EDO ARINTZEKO HELBURUAREKIN, ALDIZKAKOAK EZ DIREN UDAL-LAGUNTZAK (AEUL), ZUZENEKOAK ETA EZOHIKOAK, BASAURIKO BIZILAGUNEI EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedea da EAE eremuan gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala arautu eta antolatzea.

Lege horretako 6. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua ezartzen da:

- a) Norberaren autonomia sustatzea eta mendekotasunaren bidez sortutako premia personalak eta familiarak prebenitzea eta artatzea.
- b) Babesgabetasun-egoeren ondorioz sortutako premiak prebenitzea eta artatzea.
- c) Bazterkeria-egoerak prebenitzea eta artatzea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- d) Larrialdi-egoerak direla-eta, norberari eta familiari sortutako premiak prebenitzea eta artatzea.

16. artikuluan GZES beraren prestazio ekonomikoak definitzen dira, eta 22.3 artikuluan prestazio ekonomikoak kategorien arabera sailkatzen dira. Bestiak beste, 3.5 prestazioak aipatu behar dira; hau da, GZESren helburuen esparruan ezar daitezkeen prestazio ekonomikoak: oinarri hauetan araututako laguntzak kategoria horretan kokatuta geratuko dira.

Ondorioz, arau honen bidez aldizkakoak ez diren udal-laguntzak arautu nahi dira, bazterkeria-egoerak prebenitu eta artatze aldera, eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzearen.

1. artikulua. — Helburua

Arau honen helburua da zuzeneko eta ezohiko diru-laguntzak ematea arautzea, bazterkeria-egoerak prebenitzeko eta artatzeko asmoarekin eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzearen, Diru-laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2.c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza horiek bereziak eta ezohikoak dira; izan ere, ordezeko moduan erantzuna eman nahi zaie premiazko egoera aurkitu eta beste inolako prestazio ekonomiko edo zerbitzurik jaso ahal izan ez duten pertsonen. Laguntzak finalistak, murriztaileak eta subsidiarioak dira, eta, hala behar izanez gero, beste zerbitzu edo prestazioren batekin osa daitezke.

Gizarte, ekonomia, gizateria eta herriaren aldetik, interesgarria da behar bezalako erantzuna ematea oinarri arautzaile hauetako artikuluetan jasotako gastu espezifikoiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak ez dituzten pertsonen premiei. Behar horiek artatzen ez badira, pertsonak eta familiak arrisku larrian jartzen dira.

Halaber, bistakoa da laguntza horiek ezohikoak direla, jasotzen dituen pertsonak ezin baitu honako lege hauetan jasotako prestazio ekonomikoen onuradun izan: Diru-sarreak Bermatzeko eta Gizarte-inklusioaren inguruko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, eta azaroaren 24ko 4/2011 Legea, aurrekoa aldatzen duena; urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua, etxebizitzaren prestazio osagarria arautzen duena; eta urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua, Gizarte-larrialdietako Laguntzak arautzen dituena.

Kontuan izanik egoera horiek urtean zehar errepika daitezkeela, eta araudiak berdintasun, objetibotasun, gardentasun eta diskriminazio ezaren inguruko printzipioei eutsi behar diela, oinarri arautzaileak onartu, eta horien deialdi publikoa egin behar da.

2. artikulua. — Onuradunak. Baldintzak eta betebeharrak

Baldintzak:

AEUL laguntzak jaso ahal izango dituzte ondorengo baldintza orokor hauek betetzen dituztenek:



- a) Gizartean esku hartzeko udal gizarte-langilearekin adostutako plan integralean parte hartzea. Horretarako, gizarte-langileak egoera egiaztatuko du diagnostiko sozialaren bidez eta arreta pertsonalizaturako planaren bitartez, arduradun teknikoaren onespenerekin.
- b) Adin nagusikoa izatea (adin txikikoak haien kargura dituzten adin txikikoen kasuan izan ezik).
- c) Laguntzaren modalitate bakoitzerako baldintza espezifikoak betetzea.

Betebeharrak:

Honako hauek izango dira AEUL laguntzen onuradunen betebeharrak:

- a) Gizarte-langilearekin hobetzeko esku-hartze plan integrala adostea, eskaeraren aurretik.
- b) Jasotako prestazioak emateko helburuan aplikatzea, eta gizarte-zerbitzuen aurrean agiri bidez egiaztatzea.
- c) Gizarte-langileari jakinaraztea aldaketak izanez gero, prestazioak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzeari dagokionean. Zehazkiago, honako hauek adieraztea:
 - Familiaren osieran izandako aldaketak. Prestazioa kalkulatzeko oinarri izan diren baliabideak aldatzea.
 - Ohiko bizitokiaren inguruko aldaketak.
- d) Oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo okerreko zenbatekoa itzultzea, horretarako ezarritako prozesuaren arabera.
- e) Gizarte-zerbitzuen aurrean azaltzea, eta eskatutakoan haiekin lan egitea.
- f) Emandako laguntzak justifikatzea, elikadura-gastuenak izan ezik (horien kasuan ez baita gastuaren egiaztagiria eskatuko).

3. artikulua. — Modalitateak, zenbatekoak eta bakoitza eskuratzeko baldintzak**3.1. Ohiko etxebizitzaren beharrianetara lotutako laguntzak****3.1.1. BIZILEKUA LORTZEKO EDO HURA GALTZEA EKIDITEKO LAGUNTZAK****Baldintzak:**

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez (adin txikikoak kargura dauden kasuan edota indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeen kasuan izan ezik).
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino 2 aldiz handiagoak diren diru-sarrerak (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera). Aintzat hartuko dira eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.
- DBEriko ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera).

Zenbatekoak:

- Gehienez ere, 2.400 euro.
 - Berrakurtzeko/ostatu hartzeko (gela 1): gehienez ere, 600 euro.
 - Berrakurtzeko/ostatu hartzeko (gela 2): gehienez ere, 900 euro.

3.1.2. ETXEBIZITZARI EUSTEKO ETA KONTSERBATZEKO LAGUNTZAK**Tipologia:**

- Etxebizitza mantentzeko, konpontzeko, altzariak eskuratzeko eta etxebizitza mantentzeko zorpetzeko laguntzak.

**Baldintzak:**

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak kargura dauden kasuan edota indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeen kasuan izan ezik.
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino 2 aldiz handiagoak (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera). Eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak hartuko dira kontuan.
- DBEko ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera).

Zenbatekoak:

- Gehienez ere 1.100 euro mantentze- eta zorpetze-gastuetarako, eta 925 euro konponketetarako eta altzarietarako.

3.2. Lan-munduratzeara eta gizarteratzea bultzatzeko laguntzak**Tipologia:**

- BUko adin txikikoak haurtzaindegira eramateko gastuak, han zain ditzaten gurasoak lanean daudenean eta/edo prestakuntza-jarduerak egiten ari direnean edo egingo dituztenean.

Baldintzak:

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino handiagoak (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera). Eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak hartuko dira kontuan.
- DBEko ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea (aurreko urteko izaera orokorrarekin eta, betiere, BUko kide-kopuruaren arabera).

Zenbatekoak:

- Gehienez 1.350 euro (150 euro/hilabeteko denboraldian); ezingo da gastu errealaren %80 gainditu.

3.3. Bestelako laguntzak**3.3.1. OINARRIZKO PREMIAK**

Elikadura, jantziak eta oinarrizko tresnak (mantak, umetxoaren orgatxo...):

Baldintzak:

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak kargura dauden kasuetan eta haurdun dauden emakumeak direnean izan ezik; antzinatasunaren baldintza hau betetzea ez da eskatuko, baldin eta beharrezana adin txikikoarena bada.
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak. Aintzat hartuko dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.
- 3.000 eurotik gorako ondarea ez izatea.

Zenbatekoak:

- Gehienez ere 900 euro. Ezingo da gastu errealaren %80 gainditu.

3.3.2. OSASUN-ARLOKO PREMIAK

Botikako gastuak, errehabilitazio-tratamenduak, logopedia, protesiak, betaurrekoak, audifonoak, haginlaria, hots, Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituenak, medikuak premia agintzeko egindako txostenarekin:

**Baldintzak:**

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak largura dauden kasuetan eta haurdun dauden emakumeak direnean izan ezik; antzinatasunaren baldintza hau betetzea ez da eskatuko, baldin eta beharrezana adin txikikoarena bada.
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabanakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak (BUko kideen kopurua aintzat hartuta). Kontuan izango dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.
- DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak:

- Gehienez ere 900 euro; gastu errearen %100era ere iritsi daiteke.

3.3.3. NORBERAREN PREMIAK**Tipologia:**

- 3.3.3.1. BUko adin txikikoek beren garapen personalerako eta/edo sozialerako teknikoki garrantzitsutzat jotako jardueretan parte hartzetik sortutako gastuak.

Baldintzak:

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.
- Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabanakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak, BUko kideen kopuruaren arabera. Aintzat hartuko dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.
- DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak:

- Gehienez 540 euro (60 euro/hilabeteko 9 hilabeteko denboraldian); ezingo da gastu errearen %80 gainditu.

- 3.3.3.2. 30 urtetik gorako pertsonen gizarte-inklusio prozesutik eratorritako gastu pertsonalak. Pertsona horiek zailtasunak izango dituzte gaitasun pertsonaletan edo sozialetan, bizitzako dinamismoak ere ahulduta edo desagertuta izango dituzte, eta, era horretan, ezingo dute nor bere kabuz moldatu, eta jatorriko BUrekiko mendekotasun egoeran aurkituko dira.

Baldintzak:

- Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.
- 30 urtetik gorakoa izatea.
- Nork bere sarrerak ez edukitzea. Ez dira kontuan hartuko BUko gainerako kideen diru-sarrerak.
- 3.000 euro-tik gorako banako ondarea ez izatea.

Zenbatekoak:

- Gehienez ere, 1.200 euro.

Ondarea zehaztea

Bizikidetzaren Unitatearen ondareak barne hartuko du aktiboa eta pasiboa, baldin eta azken hau betearazte judizial edota administratiboan badago.

Aktiboa osatuko dute ondasun higigarri eta higiezinak, horien gainean jabetza, edukitza edota usufuktu eskubidea badago. Hauen barruan egongo dira, gutxienez, ondoko hauek: hiri- eta landa-ondasun higiezinak, dirutan erraz bihurtzen diren titulu, balore eta



kreditu eskubideak edota eskuzko dirua, errenta aldakor edota finkozko tituluak, motor-dun ibilgailuak eta, salbuespenez, familia-arreoa, DBEren araudian ezarritako baldintzetan.

Aktiboaren balio horretatik, salbuespenez, kenduko da Bizikidetzaren Unitatean dagoen pasiboa, baldin eta, zorren ordainketa korrientea artxibatu bada, bizikidetzaren unitateko kideren batek betearazte judizial prozedura batean demandatua edota betearazte administratibo baten parte izan eta ondarea osatzen duten ondasunen prebentziozko enbargo edota behin betiko enbargoa ezarri bada. Kasu horretan, aktibotik kendu beharreko balioa izango da aipatutako prozeduretan erreklamaturako zenbatekoa, dagozkion enbargoak eragin dituenak.

4. artikulua. — Eskaera egiteko epea

Eskaera egiteko epea oinarriak argitaratzen direnetik 2019ko azaroaren 13ra arte egin ahal izango da.

5. artikulua. — Finantzaketa

2019. urterako AEUL laguntzak 11 2314 48099 partidaren jasotako aurrekontuko kredituaren kargura finantzaturako dira, 30.000,00 euro kopuruaz.

6. artikulua. — Emaiteko prozedura

Diru-laguntza zuzenean ematen da, oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuta eta gero, Diru_laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, Lege horretako 28. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritakoari dagokionean, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak izateagatik.

Eskaera aurkeztea

Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzen eskaerak Basauriko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin eta entregaturako dira.

Eskatzaileak, behar bezala betetako eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta, hala behar izanez gero, familia-unitateko gainerako kideena.
- b) Familia-liburuaren fotokopia, eta/edo, hala behar izanez gero, zaintza edo babes-egiaztatzen duten agiriak.
- c) Familia-unitateko kide guztien sarreraren ziurtagiriak (nominak, pentsioak, langabezia prestazioak/subsidioak, DBE/EPO).
- d) Eskatzailearen ondasun higigarrien eta higiezinen ziurtagiriak, eta, hala behar izanez gero, familia-unitateko kide guztienak (estatukoak, foru-mailakoak eta jatorriko herrialdekoak).
- e) Errenta-aitorpenaren fotokopia edo, haren ordean, aitortza ez egitea egiaztatze-ko Ogasunak emandako ziurtagiria.
- f) Bizikidetzaren Unitateko kide guztien lan-bizitza.
- g) AEL helbideratzeko banku-agiria, edo, haren ordean, banku-endosua.
- h) Gastuen fakturak edo aurrekontuak (laguntza gastu horietarako eskatuko da).
- i) Premia-egoera bermatzen duen beste edozein agiri eta/edo gizarte-langileak eskatutako agiriak egoera egiaztatzearen.

Era berean, administrazio-espeditzea osatze aldera, eskatzaileak emandako dokumentazioa bBasauriko Udalak osatuko du ondorengo agiriarekin:

- a) Errolda eta ibilgailuen gaineko ziurtagiria.
- b) Horren lekuan, familia-unitateko kide guztien bizikidetzaren-ziurtagiria.
- c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako txosten soziala.



Basauriko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatu ahal izango dituzte onuradunek egindako aitortpenak, eta, horretarako, beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkiete beste erakunde edo entitate publiko eta pribatuei, interesatuaren onespenerekin.

Ebazpena

Espedientea dekretu bidez ebatziko da.

Basauriko Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Aldizkakoak Ez diren Udal Laguntzen onuradunen jarraipena egingo dute, dagokion dokumentazioaren bidez laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla egiaztatu ahal izate aldera.

Aurreikusitako helbururako erabiltzea bermatzeko, ez-ohiko kasuetan eta laguntza-aren onuraduna aurrez ados izanik, laguntza zuzenean igorri ahal izango zaie zerbitzua eskaintzen duten pertsonari edo, haien lekuan, borondatezko erakundeei, Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzaileak direnei.

Halaber, laguntza ordainketa bakarrean edota zatikatutako hainbat ordainketatan eman ahal izango da.

Aipatu laguntza aurreikusitako gastu espezifikorako erabilia izan dela justifikatzen ez bada, itzuli egin beharko da okerreko kobrantza-prozesuari hasiera emanda, elikadura-aren inguruko gastuetarako izan ezik, kasu horretan gastua ez baita justifikatu beharrik izango.

Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak ezingo dira inola ere konpentsatzeko edo deskonturako edo atxikipen edo enbargarako erabili.

7. artikulua. — Justifikazioa

Laguntzak justifikatzeko, laguntza izan duten kontzeptuen inguruko ordain-agiriak eta/edo fakturak aurkeztu beharko dira, elikadurako gastuen kasuan izan ezik, horiek justifikatu beharrik ez izateagatik.

Justifikatzeko epea gehienez hilabete batekoa izango da, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita ordainketa bakarra egin denean; zatikatutako ordainketei dagokienez, hamabost eguneko epea emango da, ordainketa partzial ezberdinak egiten diren unetik aurrera.

Laguntza justifikatzen ez bada, okerreko kobratzen prozesuari hasiera emango zaio.

8. artikulua. — Segimendua

Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuek laguntza horiek jaso dituen pertsonaren segimendua egingo dute, aipatu laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla eta laguntza ekarri duen premiaren mantentzea egiaztatzearen.

9. artikulua. — Araubide juridiko aplikagarria

Laguntzak honako hauek eraenduko dituzte: oinarri arautzaile hauetan ezarritakoak; Gizarte Zerbitzuen inguruko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak; Diru Sarrerak Bermatzearren eta Gizarte Inklusioaren inguruko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduak, publizitate eta konkurrentzia printzipioei dagokienean izan ezik.

Basaurin, 2020ko urtarrilaren 7an. — O.E. Gizarte Politikako Atal Burua. — Behin-behineko Idazkari Nagusia,